# Bestelako Xedapenak

## EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
## ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

**3051**

AGINDUA, 2010eko maiatzaren 19koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoaren Kontratazio Mahaiak eratzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Kontratazio Erregimenari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuak 4. artikuluan xedatzen duenez, Sail bakoitzean eta, hala badagokio, Erakunde Autonomo bakoitzean Kontratazio Mahai bakar bat eratuko da, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Erakunde Autonomoa atxikia dagoen Saileko buruaren baterako Agindu bidez.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko Sailak sortu, kendu eta aldatzeari buruzko eta sail horien eginkizunak eta jarduera-arloak zehazteari buruzko Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 eta uztailaren 30eko 20/2009 Dekretuen bitartez, Sailen egitura berrantolatu da, Kontratazio Mahaietan eragina izanik; horren ondorioz, sailen egungo Kontratazio Mahaiak indarreko egitura berrira egokitu beharko dira, adierazitako egunetik aurrera.

Horren arabera, eta Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeak txostena egin ondoren, honako hau

XEDATU DUGU:

***1. artikulua.***– Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Kontratazio Mahaia.

1.– Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzari atxikia, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Kontratazio Mahaia sortu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Kontratazio Erregimenari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 7. eta 5. artikuluetan, hurrenez hurren, aurreikusitako funtzioak betetzeko eta bertan jasotako jardun-eremuarekin, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren kontrataziopeko espedienteei dagokienez.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA
## DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

**3051**

ORDEN de 19 de mayo de 2010, del Consejero de Economía y Hacienda y de La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales por la que se crean las Mesas de Contratación, del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, y del Organismo Autónomo Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laboral.

El Decreto 136/1996 de 5 de junio sobre Régimen de Contratación de la Administración de Contratación de la Administración de la Comunidad de Euskadi dispone, en su artículo 4, que en cada Departamento y, en su caso, Organismo Autónomo se creará una única Mesa de contratación, mediante Orden conjunta del Consejero de Economía y Hacienda y del Consejero del Departamento correspondiente al que se encuentre adscrito el Organismo Autónomo.

Los Decretos 4/2009, de 8 de mayo, y 20/2009, de 30 de julio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y determinación de funciones y áreas de los mismos, han venido a modificar la estructura departamental con la consiguiente incidencia en las Mesas de Contratación existentes, lo que requiere que se proceda a una adecuación de las actuales Mesas de Contratación departamentales a la nueva estructura vigente a partir de la fecha.

En su virtud, previo informe de la Junta Asesora de la Contratación Administrativa,

DISPONEMOS:

***Artículo 1.***– Mesa de Contratación del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales.

1.– Adscrita a la Dirección de Servicios y Régimen Jurídico, se crea la Mesa de Contratación del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, para el ejercicio de las funciones y con el ámbito de actuación previsto en los artículos 7 y 5 respectivamente del Decreto 136/1996 de 5 de junio sobre Régimen de Contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en relación con los expedientes cuya contratación corresponda al Departamento de Empleo y Asuntos Sociales.

2.– Erreferentziako Kontratazio Mahaiak honako kide hauek izango ditu.

a) Presidentea: Sailaren Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna; hutsuneen, absentzien edo gaixotasunen kasuetan, edo legezko beste arrazoiren bat izanez gero, Sailaren Aholkularitza Juridikoaren arduradunak ordezkatuko du.

b) Kontratua sustatu duen sailaren Zuzendaritzaren ordezkari bat.

c) Aholkulari Juridiko bat: teknikaria, zuzenbidean lizentziatua, Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzari atxikia.

d) Hiru ordezkari, bat Kontrol Ekonomikoko Bulegokoa, beste bat Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzakoa, eta, beste bat, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzakoa; azken hori soilik ondasun eta zerbitzu informatikoei buruzko espedienteen kasuan. Ordezkariak dagozkien titularrek izendatuko dituzte.

e) Idazkaria: Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren kontratazioko arduraduna, hitzarekin eta botorik gabe; arduraduna ez dagoen kasuetan, Zuzendaritza bereko Kontratazioko teknikariak ordezkatuko du.

***2. artikulua.***– Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoaren Kontratazio Mahaia.

1.– Zuzendaritzari atxikia, Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoaren Kontratazio Mahaia sortu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Kontratazio Erregimenari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 7. eta 5. artikuluetan, hurrenez hurren, aurreikusitako funtzioak betetzeko eta bertan jasotako jardun-eremuarekin, Erakunde Autonomoaren kontratazio-peko espedienteei dagokienez.

2.– Erreferentziako Mahaiak honako kide hauek izango ditu.

a) Presidentea: Antolamendu, Administrazio eta Giza Baliabideen zuzendariordea. Hutsuneen, absentzien edo gaixotasunen kasuetan, edo legezko beste arrazoiren bat izanez gero, zuzendariorde teknikoak ordezkatuko du.

b) Kontratazioa eskatzen duen Zuzendariordetzaren ordezkari bat, horren titularrak izendatua.

c) Teknikari bat, zuzenbidean lizentziatua, Aholkularitza Juridikoari atxikia.

d) Hiru ordezkari, bat Kontrol Ekonomikoko Bulegokoa, beste bat Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzakoa, eta, beste bat, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzakoa; azken hori soilik ondasun eta zerbitzu informatikoei buruzko espedienteen kasuan. Ordezkariak dagozkien titularrek izendatuko dituzte.

2.– La referida Mesa de Contratación estará compuesta por los siguientes miembros.

a) Presidente: responsable de Administración y Servicios del Departamento, en casos de vacante, ausencia o enfermedad u otra causa legal, será sustituido por el Responsable de la Asesoría Jurídica del Departamento.

b) Vocal en representación de la Dirección departamental impulsora del contrato.

c) Vocal-Asesor Jurídico: un técnico, licenciado en derecho, adscrito a la Dirección de Servicios y Régimen Jurídico.

d) Tres vocales en representación, uno, de la Oficina de Control Económico, otro, de la Dirección de Patrimonio y Contratación y, otro, de la Dirección Informática y Telecomunicaciones, este último únicamente en los expedientes referidos a bienes y servicios informáticos, designados por sus respectivos titulares.

e) Secretario: Responsable de contratación de la Dirección de Servicios y Régimen Jurídico, con voz y sin voto, quien, en caso de ausencia será sustituido por el Técnico de Contratación de la misma Dirección.

***Artículo 2.***– Mesa de Contratación del Organismo Autónomo Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laboral:

1.– Adscrita a la Dirección se crea la Mesa de Contratación de Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales., para el ejercicio de las funciones y con el ámbito de actuación previstos en los artículos, 5 y 7 del Decreto 136/1996 de 5 de Junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en relación con los expedientes cuya contratación corresponda al Organismo Autónomo.

2.– La referida Mesa estará compuesta por los siguientes miembros:

a) Presidente: la Subdirectora de Organización, Administración y Recursos Humanos. En los casos de vacante, ausencia o enfermedad u otra causa legal, será sustituida por el Subdirector Técnico.

b) Vocal en representación de la Subdirección demandante de la contratación, designado por su titular.

c) Vocal, un técnico, Licenciado en Derecho, adscrito a la Asesoría jurídica.

d) Tres vocales en representación, uno de la Oficina de Control Económico, otro, de la Dirección de Patrimonio y Contratación y, otro, de la Dirección de Informática y Telecomunicaciones, este último únicamente en los expedientes referidos a bienes y servicios informáticos, designados por sus respectivos titulares.

e) Idazkaria: Erakunde Autonomoaren Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketako teknikaria, hitzarekin eta botorik gabe. Hutsuneen, absentzien edo gaixotasunen kasuetan, edo legezko beste arrazoiren bat izanez gero, ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketako arduradunak ordezkatuko du.

***3. artikulua.***– Ordezkapenen erregimena.

Ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 6.2 artikuluaren bigarren paragrafoan xedaturikoaren arabera, modu singularrean egin ez diren izendapenak eta agindu honetan aurreikusi ez diren ordezkapenak Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak eta Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoaren zuzendariak erabakiko dituzte, bakoitzak dagokion eskumen-eremuaren barruan. Izendapen horiek egitean izendatutako pertsonen arteko albait aldaketa gutxien egitea zainduko da, eta espedientean jasoko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren eta Euskal Estatistika Erakundearen Kontratazio Mahaiak sortzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren eta Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 1996ko uztailaren 12ko Agindua indargabetuta geratzen da.

Era berean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Kontratazio Mahaia sortzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko urtarrilaren 22ko Agindua indargabetuta geratzen da.

AZKEN XEDAPENA

EHAAn argitaratzen den biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 19a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
GEMMA ZABALETA ARETA.

e) Secretario: Técnico de Gestión Económica-Presupuestaria del Organismo Autónomo, con voz y sin voto, quien en los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otro causa legal, será sustituido por el responsable del área de gestión económica-presupuestaria.

***Artículo 3.***– Régimen de Sustituciones.

Conforme a lo dispuesto en el segundo párrafo del artículo 6.2 del Decreto 136/1996, de 5 de junio, las designaciones no efectuadas con carácter singular y las suplencias no previstas en la presente Orden, serán acordadas por la Consejera del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales y por la Directora de Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laboral, cada una dentro de su respectivo ámbito competencial. Dichas asignaciones se efectuarán procurando la menor alternancia posible en las personas asignadas y de ellas, se dejará constancia en el expediente.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Orden de 12 de julio de 1996 de los Consejeros de Hacienda y Administración Pública y de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, de creación de las Mesas de Contratación del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social y del Euskal Estadística-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística.

Asimismo queda derogada, la Orden de 22 de enero de 2002, de los Consejeros de Hacienda y Administración Pública y de Vivienda y Asuntos Sociales, de creación de la Mesa de Contratación de Vivienda y Asuntos Sociales.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de mayo de 2010.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,
GEMMA ZABALETA ARETA.